



## AZOKAREN ERREGELAMENDUA

OHARRA: Dokumentu hau informazioa emateko helburuarekin eginda dago. Aldizkari ofizialetan argitaratutako testu onartuek bakarrik dute balio legala

**Onartuta:** Udalbatzak 1993/03/29an

**Argitaratuta:** Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 1993/05/13an

**Akats zuzenketa:** Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta 1993/06/10ean (4., 9., 24., 25., 37., 42., 49., 50. eta 53. artikulua euskarazko bertsioan eta 9, 31, 37, 49 eta 50 artikuluetan gaztelarazko bertsioan)

### **Aldaketak:**

#### **1. aldaketa:**

11. artikulua, 15. artikulua, 25 artikulua, 29 artikulua

Onartuta: Udalbatzak 1997/03/06an

Argitaratuta: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 1997/03/17an

#### **2. aldaketa:**

8 artikulua, 15. artikulua, 17 artikulua, 20-1. 22 artikulua

Onartuta: Udalbatzak 2010/07/26an

Argitaratuta: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2010/09/10an.

#### **3. aldaketa:**

1. artikulua, 11. artikulua

Onartuta: 2011/04/18an

Argitaratuta: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2011/07/04

#### **4. aldaketa:**

15. artikulua, 16. artikulua, 17. artikulua

Onartuta: 2012/10/29an

Argitaratuta: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2013/01/18

**5. aldaketa:**

1. artikulua, 2. artikulua, 6. artikulua, 7. artikulua, 8. artikulua, 10. artikulua, 11. artikulua, 12. artikulua, 13. artikulua, 15. artikulua, 16. artikulua, 19. artikulua, 20. artikulua, 21. artikulua, 22. artikulua, 23. artikulua, 24. artikulua, 25. artikulua, 26. artikulua, 27. artikulua, 28. artikulua, 29. artikulua, 32. artikulua, 34. artikulua, 36. artikulua, 37. artikulua, 39. artikulua, 40. artikulua, 41. artikulua, 44. artikulua, 49. artikulua, 50. artikulua, 51. artikulua, 52. artikulua, 53. artikulua, 54. artikulua, 55. artikulua, azken xedapenetako bigarrena, azken xedapenetako lehenengoa

Onartuta: 2024/06/10ean

Argitaratuta: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2024/08/09

AURKIBIDEA:

I KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK .....	4
II KAPITULUA. ESKUMENAK.....	4
III KAPITULUA. SALTOKIAK .....	5
IV. KAPITULUA.SALTOKIEN ESLEIPENA .....	6
V.KAPITULUA. SALTZAILEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.....	9
VI. KAPITULUA. SALTZAILEEN BATZORDE LAGUNTZAILEA .....	13
VII. KAPITULUA. OSASUN IKUSKARITZA .....	14
VIII. KAPITULUA.ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK .....	15
IX. KAPITULUA.ERREKURTSOAK ETA ERREKLAMAZIOAK .....	16
AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA .....	17
AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.....	17

# AZOKAREN ERREGELAMENDUA

## I KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

### 1. artikulua.

Udalak ezarritako hornikuntza-zentroa da azoka, Erregelamenduko 29. artikuluan zehazten diren elikagaiak lehia irekian, era askotariko saltokien konkurrentziaren bidez, xeheka saltzeko. Hala ere, bertan interes orokorreko beste erabilera batzuk edo horien eraginarekin bateragarriak diren jarduerak garatu ahal izango dira.

Eragin guztietarako, eta batez ere erregelamendu honen aplikazioaren eraginetarako, azoka eta azokako saltokiak adierazten denean honako hau ulertuko da: behe solairuan ezker aldean kokatuta dauden saltoki finkoak eta eskuma aldean kokatuta dagoen erabilera anitzeko espazioa, Elikaenea deiturikoa. Eta horrela zehazten denean saltoki ez-finkoak edo irekiak.

### 2. artikulua.

Azokako egutegian aldez aurretik zehaztuko diren egunetan eta ordutegietan egongo da irekirik azoka.

— Saltzaileen Batzorde Laguntzailea entzun ondoren Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak finkatuko du salmenta ordutegia eta argitara emango du hamar eguneko aurrerapenez.

— Saltokietako titularrek eta langileek aukera izango dute salmenta ordutegia baino bi ordu lehenago azokan sartzeko eta ordubete beranduago irteteko.

Ordutegi horretatik kanpo azokan ez da inor onartuko, Udalak zuzenean baimena eman dienak salbu.

### 3. artikulua.

Udalak eskua sar dezake emakidadunen merkatuko ihardueran, salmentan eskaintzen diren gaien kalitatea, pisuz edo neurrira egiten den salmentaren fidagarritasuna, salneurrien zulentasuna eta lehia irekia ziurtatzeko.

### 4. artikulua.

Azokako leku agiri batean iragarki taula ofiziala ipiniko da eta barne erregimenekoak edo izaera orokorrekoak diren iragarki guztiak ezarriko dira bertan. Argitalpena esan den eran egitearen baldintza bakarraz, saltokien titularrei eta publikoak berari xedapen horiek jakinarazi zaiela ulertuko da.

### 5. artikulua.

Udalak zehaztuko dituen orduetan eta eran egingo da azoka-gaien deskarga.

Deskarga hau, helburu horretan zehaztuko diren tokietan bakarrik egingo da.

## II KAPITULUA. ESKUMENAK

---

## 6. artikulua.

Udalbatza Osoaren eskumenekoak dira:

- a) Erregelamendu hau onartu, aldatu edo indargabetzea
- b) Azoka aldatu edo kentzea edo beste bat eraikitzea.

## 7. artikulua.

Tokiko Gobernu Batzarraren eskumenekoak dira:

- a) Azokako saltokiak esleitzea.
- b) Arau-hauste larriek edo oso larriek dakartzaten zigorrak ezartzea.
- c) Azoka irekitzeko orduak eta egunak zehaztea.
- d) Zerbitzuko zinegotzi delegatuak, dagokion Batzorde Informatzaileak edo Alkateak berak aurkez litzaketen arazoan aurrean erabakiak hartzea, Udal Osoko Bilkurari horien berri emanaz arazoan garrantziak horrela eskatuko balu.

## 8. artikulua.

Aurreko bi artikuluetan zehaztuta ez dagoenaren gaineko eskumena alkatearena izango da. Besteak beste honako eskumen hauek izango ditu eta Zerbitzuko zinegotziaren esku utzi ahal izango ditu:

- a) Azokako zerbitzua zuzendu, ikuskatu eta bultzatzea.
- b) Arau-hauste arinei dagozkien zigorrak ezartzea eta arau-hauste larri edo oso larriei dagozkien zigorrak proposatzea.

## **III KAPITULUA. SALTOKIAK**

### 9. artikulua.

Merkatal iharduera egiten den azokako saltokiak Udalaren jabetzakoak dira. Zerbitzu Publikoko Ondasunena da beren izaera eta, horregatik, besterenduezinak, enbargaezinak eta preskriba ezinekoak dira.

### 10. artikulua.

Saltokiak honela sailkatuko dira:

- a) Haien konfigurazioagatik, finkoak eta ez-finkoak edo irekiak.
  - Saltoki finkoak dira:
    - Baimendutako produktuak saltzeko edo zerbitzuak emateko direnak eta behe solairuko ezkerrean kokatuta daudenak.
    - Behe solairuko eskuma aldean kokatuta dagoen erabilera anitzeko espazioa, Elikaenea deiturikoa.

- Saltoki ez-finkoak edo irekiak dira: azokan kokatuta dauden eta horiek mugatzen dituen itxierarik gabeko salmenta espazioak, eta baimendutako produktuak saltzeko direnak.

b) Adjudikazio-baldintzengatik, esleipen luzekoak, motzekoak eta bereziak.

- Esleipen luzekotzat joko dira saltoki batean urtebetetik gorako aldietan postu edo espazio jakin bat modu pribatiboan erabiltzeko eskubideak ematen dituzten emakidak, beti ere legez ezarritako gehieneko epea gainditu gabe.
- Esleipen motzekoak joko dira azokako azalera baimenduko diren urtebeteko iraupena izango dute eta hiru urtez luzagarriak izango diren saltokiak.
- Berezi izaera dute merkataritza, kultura edo beste izaerako intereseko arrazoiengatik Bergarako Udalaren zerbitzuaren emakidadunaren edo partikularren edo erakunde publikoen eta pribatuen artean izenpetutako kontratu bidez ematen direnek.

#### 11. artikulua.

(Edukirik gabe)

#### 12. artikulua.

(Edukirik gabe)

### **IV. KAPITULUA.SALTOKIEN ESLEIPENA**

#### 13. artikulua.

Erabilera pribatiboa dagokien neurrian, azokako saltokien erabilpena emakida administratibopean egongo da. Emakidak lehia-erregimenean emango dira. Hala ere, emakida zuzenean eman ahal izango da. Administrazio Publikoaren Ondareari buruzko 33/2003 Legean aurreikusitako kasuetan.

#### 14. artikulua.

Baimendutako zerrendari egokitzuz gaiak txikizka saltzeko obligazioz, saltokia modu pribatiboan hartzeko eskubidean c:latza emakidaren xedea.

#### 15. artikulua.

Saltoki itxien emakida administratiboa hiru eratakoa izan daiteke:

— Iraupen laburrekoa. Hasieran urtebeterako iraupena du, eta urtez urte luzatzen joango da, betiere udalak espresuki horrela erabakiko balu, gehienez ere 4 urte bete arte.

— Iraupen luzekoa. Udalak jarritako iraupen luzeagokoa, eta udalak iraupen osoarentzat jarritako prezio eta baldintzekin.

— Berezi izaeradunek kontratuan jarritako iraupena izango dute.

Emakida administratiboaren arabera, iraupen luzeko edo berezi izaeradunen emakidaren emakidadunak kanonaren ordainketa egin beharko du Baldintzen Pleguan edo kontratuan horrela zehazten bada, bertan zehazten den eran.

Halaber, eta horrela dagozkion kasuetan, Ordenantza Fiskaletan aurreikusitakoaren eran finkatutako tasa edo/eta zergen aldizkako ordainketa ere egin beharko du. Aipatutako tasa edo/eta zergak urtero berrikerik daitezke, Ordenantza fiskaletan aurreikusitakoaren arabera.

Iraupen laburrekoen kasuan, baldintzen pleguan jarritako kanona eta ordenantza fiskaletan jarritako aldizkako tasa edo/eta zergak ordaindu beharko dituzte.

Hori horrela izanda ere, Bergarako udalak, Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakiaren bidez, libre dauden saltoki itxien aldi baterako emakida onartu ahal izango du, eta behin-behineko emakida honen hasierako iraupena izango da eskaera egiten eta onartzen den urte naturalekoa. Hala ere, behin-behineko emakida indarrean dagoen bitartean, norbait saltoki horretaz interesaturik balego iraupen laburreko edo/eta luzeko emakidarekin hartzeko, behin-behineko emakida bertan behera geldituko da egingo den lizitazioa bukatzen denean, eta udalak ez du kalte-ordainik ordainduko.

Saltoki finkoen behin-behineko emakidari, araudi honetan bereizten ez denetan, behin-behineko saltoki ez-finko edo irekiei dagokien araudia eta Ordenantza Fiskaletan jasotako tasa eta beste kontzeptuak ere aplikatuko zaizkie.

#### 16. artikulua.

Saltoki ez-finko edo irekien esleipena aukeren arabera egingo da eta urte bakoitzeko abenduaren 31ra arte izango da. Lehentasuna izango dute aldi berean salgaien ekoizleak diren saltzaileek.

Urtea bukatu ondoren esleipen berri bat eskuratu nahi bada, dagokion eskaera egin beharko da, une bakoitzean zehaztuko diren agiriekin batera.

Saltoki finkoen behin-behineko esleipenei aurreko ataletan adierazitakoa aplikatuko zaie, baina honako berezitasun honekin: Esleipenaren lehen urte naturala bukatu eta saltoki finko horrekin interesdun gehiago baleude, aurretik zegoenari beste urtebete natural baterako lehentasuna emango zaio, betiere behin-behineko esleipenaren iraupena guztira urtebete baino txikiagoa izan bada. Luzeagoa izan bada, eskaera berria egin duenak izango du lehentasuna urte natural horretan.

Esleipen berri hauen kasuan, Ordenantza Fiskalaren arabera okupazioarengatik emakidadunari ordaintzea dagokion hileroko kuota bakarrik ordaindu beharko da.

#### 17. artikulua.

Saltoki finkoen emakidaren iraupena Baldintzen Pleguan zehaztuko dena izango da.

Iraupen luzeko emakiden kasuan, gehienez ere 40 urtetarako izango da iraupena.

Saltoki finkoen behin-behineko emakiden iraupena eskaera onartzen duen erabakian jasotakoa izango da, eta gehienez ere urte naturalekoa.

#### 18. artikulua.

Emakidadunak beharturik daude beren saltokia pertsonalki zuzentzera, erregelamenduko 19. artikuluko 3. artikuluan xedatutakoan ezik, eta erabat debekatuta dago osorik edo partzialki berrakuratzea.

### 19. artikulua.

1. Gaitasun juridiko osoa eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisikoak eta juridikoak izango dira emakidadunak.
2. Ezingo dira emakida-hartzaile izan toki legerian zehazten diren ezgaitasun kasuetan sarturik daudenak.
3. Transmisioa heriotzagatik denean, orduan bakarrik «adin txikikoez edo adinez nagusi ezgaituek» ahalko dute, legez baimena daukanak ordezkatuta, lanpostuko titularraren oinordetza jaso.

### 20. artikulua.

1. Iraupen luzekoa den kasuetan bakarrik, saltoki finkoaren esleipenaren titularra den pertsona fisikoa hiltzen bada, titularraren oinordekoaren edo legatadunaren alde egingo da saltokiaren transmisioa.
2. «Mortis causa»rengatik saltoki finkoa bi pertsonari edo gehiagori zatitu gabe transmititzen zaienean, hiru hileko epean pertsona horiek erabaki beharko dute eta Udalari esan beharko diote zein izango den saltokiaren titularitatea hartuko duena. Adierazi den epean ez badute horrelakorik egiten, emakida iraungitza aitortuko du Udalak.

### 21. artikulua.

1. Testamentuzko xedapenik ez balego, saltokia titularraren ezkontideari (edo antzeko harreman afektiboa duen pertsonari), seme-alabei, gurasoei edo anai-arrebei eskualdatuko litzaieke hurrenez hurren. Ahaidetasun berdineko kasurik izaten bada, titularra hil aurreko hiru unetan hari lagundu diola zuritzen duenari edo, kasu horretan inor ez balego, interesa dutenen artean zozketa bidez suertatukoari emango zaio lehentasuna.
2. Aipatu ahaidetariko inor ez badago, emakida bukatutzat emango da eta Udalak, nahi izanez gero, lizitazioan jarri ahal izango du.

### 22. artikulua.

Saltoki ez finko edo irekien kasuan, eta iraupen laburreko kontzesioa duten saltoki finkoen kasuan, titularraren heriotzak emakidaren iraungipena ekarriko du berarekin eta oinordekoek ez dute inolako eskubiderik izango.

### 23. artikulua.

1. Jarduera mantenduz beti ere, saltoki finkoen iraupen luzeko emakidadunek eskualdatu ahalko dituzte saltokiok, baldin eta Udalak baimena ematen badu eta xede horretan Ordenantza Fiskalean finkatutako eskubideen ordainketa egiten bada.
2. Hala ere, Udalak aukera izango du tanteo eskubidea erabiltzeko eta, zentzu horretan, eskualdaketarako baimena eskatzerakoan transmisioaren zenbatekoa azalduko du esleipen hartzaileak. Udalak bi hileko epean ebatzi beharko du edo, bestela, baimenduta dagoela ulertuko da.



#### 24. artikulua.

1. Saltoki finkoen eta saltoki ez finko edo irekien emakida daukatenek emakida eskualda diezaiekete ezkontideari (edo antzeko harreman afektiboa duen pertsonari), seme-alabei, ilobei, gurasoei, anai-arrebei eta, kasuko saltokian lanean aritu izanez gero, besteren konturako langileei, baldin eta jarduerarekin jarraitzeko asmorik badago, aldez aurretik udal baimena jaso eta Ordenantza Fiskalean helburu horretarako finkaturik dauden eskubideak ordaindu beharko direlarik.

2. Lagapen hori aurrera eraman ahal izateko, aurreko puntuan azaltzen den udal baimena lortzeaz gainera ondorengo baldintzak bete beharko dira:

— Lagapena egiten duen titularrak urtebete baino gehiagoko epean saltokiaren jabe izan beharko du.

— Eskuratzailleak edo lagapenaren hartzaileak, lagapenaren eskaera egunaren aurreko bi urteetan zehar lagatzailearekin bizi izan dela frogatu beharko du. Azken baldintza hori ez da behar izango, eskuratzailleak edo lagapenaren hartzaileak frogatzen badu bizikidetzarako eskatu den epe berean bere eguneroko .lankidetzaren pertsonala, zuzena eta etenik gabekoa eskaini duela lagapenera jartzen den postuan.

#### 25. artikulua.

Saltokien eskualdaketa edo lagapen partzialik ez da onartuko.

#### 26. artikulua.

Erregelamenduko beste zenbait artikulutan xedatzen denaren kalterik gabe, emakidak zeragatik iraugiko dira:

- a) Titularrak errenuntzia zuzena eta idatzizkoa egin duelako.
- b) Titularra hil egin delako. Erregelamenduko 20. eta 21. artikuluetan xedatzen dena salbu.
- c) Elkarrekin titularra desegin egin delako.
- d) Emakida egin eta gero. Administrazioarekin kontraturik egiteko ezgaiturik gertatu delako.
- e) Eskurte-dokumentuan finkatutako emakidaren indarraldia agortu izana.
- f) Erregelamenduko artikuluetan agindurik dagoenaren arabera arau-hauste oso larria egin delako.
- g) Interes publikoko arrazoiek eskatzen dutenean, Udalak epemuga aurretik emakida indarrik gabe utzi duelako, sor litezkeen kalteak kitatuz edo, horretarako biderik ez balego, kitatu gabe.

### **V.KAPITULUA. SALTZAILEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK**

#### 27. artikulua.

Saltokietako titularren eskubidea da, ezarri den eran beren lana egin ahal izateko beharrezkoak zaizkion zerbitzu publikoari atxikitako ondasunez baliatzea.

## 28. artikulua.

Udalak ez du inolako erantzukizunik hartuko merkantziak, ondasun higigarriak eta saltokiaren ustiapenekoak diren gainerako tresnak kaltetu, ostu edo kaskatu egin direlako.

Zaintzaren erantzukizuna ere ez du bere gain hartuko, nahiz eta merkatuaren zaintza lanetan bere ardura hartuko duen.

## 29. artikulua.

Udal baimenik gabe ezingo da inoiz aldatu saltokien emakida xedea.

Kontratuan azaltzen dena izango da saltokiaren izena eta izen bakoitzari dagokiona izango da bertan egingo den salerosketa edo jarduera mota.

Izenaren arabera, postu bakoitzean ondorengo gaiak sal daitezke:

— 1. Fruituak eta barazkiak: fruituak, ortuari eta barazki freskoak, patatak eta gainerako tuberkuluak.

— 2. Okelak, idikiak, behikiak, txahalkiak, txerrikiak (urdaitegikoak diren gaiak iezi), ardikiak, axurikiak, antxumekiak. Sal daitezke ere aurreko okelak, izozturik edo hozturik, eta baita ere jaki prestatuak, osagai nagusia adierazitako okelaren bat denean. Produktu izoztuak edo hoztuak saldu nahi badira, beharrezko hozkailuez horniturik egon beharko du saltokiak.

— 3. Zaldikien salmenta. Bakarrik zaldi okela Saltzeko.

— 4. Urdaitegia. Urdai freskoa, ondua eta gatzitua, urdaiazpikoa eta urdaiazpiko egosia, saltxitxoak, txorizoak eta bestelako hestekiak eta jaki hotz egosiak.

— 5. Hondakinak. Freskoak edo hoztuak, gainerako zatikiak bezala.

— 6. Arrautzak, hegazti hondarrak, basetxeko eta ehizako untxiak.

— 7. Arrainak. Arrain freskoa eta izoztua eta era guztietako itsaskiak.

— 8. Salgai egosiak, prestatuak, hoztuak eta izoztuak.

— 9. Esnea. Egunekoa, esterilizatua eta pasteurizatua, gurina, esnegaina, gaztak, jogurta eta gainerako esnekiak.

— 10. Janari-dendak. Lekariak eta bihiak, kontserbak, gailetak, kafeak eta txokolateak, kakao hautsen eta eratorriak, orekiak (makarroiak, espagetiak eta abar...), olioak eta ozpinak, gatzak eta antzekoak, azukrea, eztiak, irasagardiak, jeleak, turroiak eta marmeladak.

— 11. Ozpinetakoak eta gazidurak. Bakailoa eta beste arrain -gazituak, lehorrak zein gatzunetan bustiak, hegaluzea eskabetxean eta gainerako arrain kontserbak, azeitunak, pepinotxoak, tipulak eta mota guztietako ozpintsuak.

— 12. Fruitu lehorrak. Mota guztietako fruitu lehorrak, hala nota pinu haziak, almendrak, hurrak, patata frijituak, azalak.

— 13. Okindegia. Era guztietako ogiak, tartean daudelarik otarretakoak egiteko moldeko ogia eta antzekoak, ensaimadak, adar-opilak gozorik gabekoak, opil arruntak, ogi legamiarekin, olio ogiarekin, esnegainarekin edo esnearekin eginak, olatak, barkilloak.

— 14. Gozotegia. Gozokiak, pastelak, tartak, hostoreak, break, bonboiak, txokolateak, turroiak, mazapanak, kontserba gozoak eta gozotegietako gainerako gaiak.

— 15. Edariak. Edari alkoholduen eta alkoholik gabeko guztiak, ur mineralak ere barne direlarik.

Debekaturik dago esnea.

— 16. Loreak eta landareak. Era guztietako loreak eta landareak, naturalak eta artifizialak, haziak, loreontziak eta lurrezko edo lozazko gainerako ontziak.

— 17. Egunkariak. Egunkariak eta mota guztietako aldizkariak edo argitalpenean maiztasun jakin batzuk dauzkatena.

— 18. Elikaenea. Bertako eta sasoiko produktuak saltzeko eta hauek sukaldatu eta salmentara bideratzeko gunea. Baita saskia osatzeko Euskal Herritik kanpoko elikagai eta beste produktuak, ekologiko eta merkatu justuko izaeradunak bereziki.

— 19. Bestelakoak

Aipamen hutsekoa den zerrenda hau ez da itxia. Zerrendakoa ez den gairen bat saldu edo zerbitzuren bat eman nahi bada, Udalak erabakiko du eragindako saltzaileei entzun ondoren.

### 30. artikulua.

Emakidadunek euskaraz jarri beharko dituzte iragarki errotuluak eta merkaturan jarriko diren guztiak Udalak finkatutako irizpideei kasu eginez antzekoak izango dira formatuari eta gainerako ezaugarriei dagokienean.

### 31. artikulua.

Udalak bere gain hartuko ditu etxearen kontserbaketa, mantenimendu eta garbiketa lanak, bai berak zuzenean eginez edo komenigarriago irizitako beste formulen bidez.

### 32. artikulua.

Saltokietan egin beharreko obra eta instalazio guztiek, munta txikikoak izanik ere, aldez aurretik Udalaren baimena beharko da eta berorrek eraikuntza materialen kalitate edo mota, ezaugarri estetikoak, aireztapen sistemen eredu edo motak eta egoki irizitako beste hainbat baldintza ezarri ahal izango ditu.

### 33. artikulua.

Zoruarekin, paretekin eta saltokiaren gainerako elementu osatzaileekin bat eginik geratzen diren obra eta instalazioak Udalaren jabetzakoak izango dira eta. ez dute kalteordain eskubiderik emango emakida amaitzerakoan.

### 34. artikulua.

Saltokian jarduteko behar diren instalazioak titularraren kargurakoak izango dira, pleguetan edo kontratuan kontrakorik adierazten ez bada.

### 35. artikulua.

Udalak erabakitako zerbitzuen garapenerako interes komunekoak diren obrak beren lokaletan egiten uztera beharturik daude saltokien titularrak eta horregatik ez dute erreklamaziorik egiteko edo kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango, lanen ondorioz bere ihardueran aritzea titularrari ezinezko zaionean salbu.

### 36. artikulua.

Saltokien titularrek ondorengo betebeharrak izango dituzte:

- a) Udalak adierazitako egutegi eta ordutegian zehar etenik gabe jendeari irekita edukitzea.
- b) Saltokia eta instalazioak behar bezala mantentzea, garbi, hondakinik gabe eta baldintza higieniko egokietan egon daitezen zainduz.
- c) Behe tentsioko instalazioetarako ezarriak dagoen eta nahitaez bete beharrekoa den arautegiaren arabera, saltokietan korrontearen kontagailua, diferentziala eta mugatzailea jartzea, norberak bere argiak ezarriak izanez gero eta aurrekoa beharko lukeen makinarik edukiz gero.

Materialen kalitatea eta kontroleko eta babeseko tresnen kokapena udaleko elektrizistak adieraziko ditu, berorren esku dagoelarik hornikuntzaren lotura egin aurretik oniritzia ematea.

Elektrizitatearen kontsumoa titularren kargurakoa izango da

- d) Pisaketako eta neurketako tresnak baimendutako ereduak izatea, Udalaren esku dagoelarik bere pertsonalaren bidez tresna horien doitasuna egiaztatzea.
- e) Salgai guztiak jendearen begi-bistan edukitzea, salgai atalik gorde, berezi edo ezkutatu gabe, kopuruarengatik eta ezarpen moduarengatik denak begi-bistan jarri ezin diren kasuan izan ezik.
- f) Salgaiak albaitearen ikuskaritzara jartzea, osasun publikorako kaltegarri deklaratu gero beroriek bahitu eta deuseztu ahal izango dituelarik.
- g) Arropa egokiak txukuntasunez jantzea.
- h) Dagozkion kanona eta gainerako ordainarazpenak ordaintzea.
- i) Saltokiak aurrekaldetik egongo dira jendeari irekita.
- j) Hondakinak eta zaborrak behar bezala itxitako plastikozko boltsetan jasoko dira eta zehazturik egongo diren lekuetan utziko dira.
- k) Iharduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta ematea eta dagozkion zergak eta tasak ordaintzea.
- l) Zerbitzuak eskaintzeko behar den pertsonalari dagokionean Gizarte Segurantzaren eta Laneko Aurreikuspen eta Segurtasunaren gaitan sortuko diren obligazioak betetzea.
- ll) Elektrizitate, telefono eta ur kontsumoen eta saltokian jarriko diren gainerako zerbitzuen gastuak bereganatzea.
- m) Erreziboak helbideratzea.
- n) Salmentara jarriko diren gaien prezioak jendearen begi-bistan edukitzea.
- ñ) Aseguruak kontratatzea, ihardunean sor litezkeen arriskuak estaltzeko.
- o) Erregelamendu honek dakartzan obligazio guztiak eta Udal Agintaritzaren edo aginteen agindu eta irizpideak betetzea.
- p) Salmentara jarritako produktuek saltzeko legezko edo araututako baldintza guztiak betetzea: etiketa, osasun baldintzak, manipulatzeko baldintzak...

### 37. artikulua.

Debekaturik dago:

- a) Elikagaien manipulazialearen txartela eduki gabe lanean aritzea, elikagai ez diren produktuak saltzeko baimenduta ez badago behintzat.
- b) Eritasun kutsakorra izanik lanean aritzea.
- c) Lekuko baldintza higieniko-sanitarioak aldatu edo desitxuratuko lituzkeen zaku, kaxa, estalki edo bestelako tresna hutsak edo ez aski garbiak edukitzea.
- d) Pasaguneetan edonolako merkantzia, zaku, kaxa edo antzekorik edukitzea. Horrela gertatuz gero, udalak kendu egingo ditu eta titularrak horri buruzko eskubide guztiak galduko ditu, abandonatuta daudela ulertuko baita.
- e) Saltokien barruan edo kanpoan, salgai jartzeko diren animaliak hiltzea eta hegaztiak lumatzea edo untxiak eta antzekoak larrutzea, eta baita saltokien barruan edo kanpoan edozein salgai garbitzea, prestatzea edo antzekorik egitea ere, salbu eta instalazioak beharrezko baldintzak betetzen baditu eta Udalak alde zuzenetik baimena ematen badu.
- f) Legez ezarritako edo aginte eskudunek diktatutako arau higieniko-sanitarioak hautsirik saltzen diren elikagaiak zerbitzatu, entregatu edo biltzea.
- g) Gainerako saltzaileen kaltetan gehiegizko propaganda edo publizitatea egitea eta bozgorailuak edo bestelako tresna akustikoak erabiltzea.

## **VI. KAPITULUA. SALTZAILEEN BATZORDE LAGUNTZAILEA**

### 38. artikulua.

1. Erabakitzeke ahalmenik gabe eta Udala lotu gabe, azokako saltzaileak ordezkaturako dituen saltzaileen batzordea eratu ahal izango da eta batzorde horren esku egongo da azokaren martxa egokirako bidezkoztat jotzen dituen ekimenak eskatzea, azaltzea edo iradokitzea eta erosleentzako saltzaileen kexak bideratzea, beharrezko deritzon guztietan azokako arduradunarekin edo Udaleko ordezkariarekin elkarrizketa daitekeelarik.
2. Beste aldetik, Batzordea Udalarekin batera arituko da azokako arazoei irtenbide egokiena emateko eta azokaren funtzionamendu egokiena lortzeko.

### 39. artikulua.

1. Saltzaileen batzordea hiru ordezkari osatuko da eta ordezkariok saltokietako titularrek izendaturako dituzte.
2. Batzorde lehendakaria eta idazkaria botoen gehiengo osoz aukeraturako dira eta bi urtero berriturako dira.

### 40. artikulua.

Batzordeak azokan bertan edo Udaletxean egingo ditu bilerak, ondorengo egoeretan:

- a) Lehendakariak bere ekimenez horretarako deia egiten duenean
- b) Batzordekideen gehiengoak eskaera egiten duenean
- c) Alkatearen eskariz.

## VII. KAPITULUA. OSASUN IKUSKARITZA

### 41. artikulua.

Albaitari ikuskatzailearen esku egongo da udal azokako instalazioetako eta geletako higiearen kontrola egitea eta, baita ere, salgai dauden jakien osasun ikuskaritza.

### 42. artikulua.

1. Albaitari ikuskatzaileak saltokien eta instalazioen egoera aztertuko du eta somatzen dituen hutsuneak zuzentzea aginduko du.
2. Beharrezkotzat jotzen dituen neurriak erabakiko ditu salmenta garaian ez dadin azpiprodukturik eta hondakinik pilatu edo agertu eta hori lortzeko beharrezkoak diren neurriak hartzea proposatuko dio udal aginteari.
3. Zerbitzuaren eraginkortasunak eta udal aginteak erabakitakoak betetzeak eskatzen dioten hainbatetan, arreta bereziz aztertuko ditu salmentan dauden jakien osasun ezaugarriak eta, beharrezkotzat jotzen duenean, laginketa lanak egingo ditu, laginak laborategi ofizialera bidaliz.

### 43. artikulua.

Egiaztatu egingo du haragi fresko, izoztu eta hoztu guztiek behar den dokumentazioa daukatela eta ez daukatenak hartu eta konfiskatu egingo ditu, arauzko baldintzak bete ondoren. Beste aldetik, ehizaren eta hegaztien osasun ikuskaritza egingo du eta produktu horien salmentarako legeriak jarrita daukan osasun egiaztatzea eskatuko du.

### 44. artikulua.

Arreta handienaz saltokietako arrainak eta itsaskiak ikuskatuko ditu eta azokako garbiketa lanak eta azokaren osasun baldintzak aldatuko lukeen beste edonolako gauzarik salmenta garaian ez dela egingo zainduko du.

Debekatuta dago lehen erabilerakoak ez diren zurezko ontzietan arrainak garbitu eta saltzea.

### 45. artikulua.

Haragiaren salmentakoak bereziki ez diren tokietan jarritako salmahai hozkailuek, haraziaren salmentarako ezarri nahi direnean, udalaren baimena eta osasuneko dauzkatela zainduko du.

### 46. artikulua.

Jendearen kontsumorako beharrezko baldintzak betetzen ez dituzten jangaiak konfiskatzea eta ondoren suntsitzea aginduko du albaitari-ikuskatzaile titularrak eta dagokion akta egin eta erasaniko industrialariari eskuratuko dio, kontraesanezko diktamen mota honetarako ezarriak dauden legezko araei atxikiko zaielarik, desadostasunik balego.

### 47. artikulua.

Albaitari-ikuskatzaileak erregistro liburu bat izango du, non ikuskatutako merkantziei, eginiko konfiskazioei, bahitutako jangaiei eta zerbitzuan gertatuko diren gorabehera guztiei buruzko datuak idatziko baititu. Liburuan idatziko diren datuak, Alkatetzari bidali behar zaizkion zerbitzuari buruzko parteak egiteko oinarria izango dira.

#### 48. artikulua.

Albaitari-ikuskatzailearen aginte izaera dela eta, azokan lanean diharduten udal langileek, haren ihardunean zehar eskatzen dizkien lankidetzak eta zerbitzuak eskaini beharko dizkiote.

### **VIII. KAPITULUA.ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK**

#### 49. artikulua.

Saltokietako emakiden titularra izango da, berak edo bertan lan egiten duten familiartekoak edo soldatapekoak Erregelamenduaren edo aplikagarri den araudiaren kontrako arau-hausteen erantzulea.

Arau fiskalak, osasun-arauak, kontsumitzaileak babesteko arauak edo beste edozein arau-hauste eginez gero, arau horietan aurreikusitakoaren arabera zehatuko dira. Erregelamendu honetan aurreikusitakoaren aurkako arau-hausteak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

#### 50. artikulua.

Arau-hauste arinak izango dira:

- a) Saltokiak eta inguruak garbi ez edukitzea eta saltzaileen txukuntasun eza.
- b) Borrokak eta istiluak
- c) Bidezko arrazoirik gabe, saltokia egun batetik bosterako epean baimenik gabe itxirik edukitzea
- d) Arau-hauste larri edo oso larri gisa sailkatuta ez dagoen Ordenantza honen kontrako edozein arau-hauste
- e) Administrazioak eskaturiko agiriak honetarako jarriko egunetan ez aurkeztea.

#### 51. artikulua.

Arau-hauste oso larriak izango dira:

- a) Urte baten barruan izaera bereko arau-hauste arin bat behin eta berriz egitea.
- b) Urte baten, barruan hirugarren arau-hauste arina egitea.
- c) Saldutako gaien kopuruari eta kalitateari dagokionez iruzurra egitea.
- d) Osasun betebeharrak behin eta berriz ez betetzea.
- e) Bidezko arrazoirik gabe, bost egun baino gehiagotan saltokia baimenik gabe itxirik edukitzea.
- f) Udal aginteak luzaturiko xedapenak lotsagabekeria ez betetzea.
- g) Dagozkion eskubideak ez ordaintzea bakoitzarentzako jarritako epean.

- h) Zerbitzua betetzeko behar den pertsonalarekin norbereganatutako Gizarte Segurantzako eta Laneko Aurreikuspen eta Segurtasuneko obligazioak ez betetzea.

#### 52. artikulua.

Arau-hauste oso larriak izango dira:

- a) Urte baten barruan izaera bereko arau-hauste larriak behin eta berriz egitea.
- b) Behar den udalaren baimena jaso gabe saltokiaren eskualdaketa egitea.
- c) Hiru hilabetetan zehar saltokia justifikatu gabe uztea.
- d) Saltokiaren egitura edo instalazioak baimenik gabe aldatzea.
- e) Saltokia berrakuran (subarriendo) jartzea.
- f) Beharrezko udal baimenik gabe saltokia familiartekoei uztea.
- g) Beharrezko baimenik gabe, emakidarena ez den beste erabilera batean jardutea saltokian.

#### 53. artikulua.

1. Arau-hauste arinen kasuan zigor hauetakoren bat ezarri ahal izango da:

- a) Ohartarazpena.
- b) 150 euro eta 600 euro bitarteko isuna.

2. Arau-hauste larrien kasuan:

- a) 601 euro eta 3.000 euro bitarteko isuna.

3. Arau-hauste oso larrien kasuan:

- a) 3.001 euro eta 10.000 euro bitarteko isuna.
- b) Kalte-ordainerako eskubiderik gabe, emakida iraungitzea.

#### 54. artikulua.

1. Arau-hauste arinak Alkatetzak zehatuko ditu, hausleari entzun ondoren.
2. Administrazioko Prozedurei buruzko Legean ezartzen denaren arabera espedienta egin ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak jarriko ditu arau-hauste larriei eta oso larriei dagozkien zigorrak.

### **IX. KAPITULUA.ERREKURTSOAK ETA ERREKLAMAZIOAK**

#### 55. artikulua.

1. Egintza administratiboaren kalifikazioa ez duen edonolako agindu edo egoeraren aurka alkateari egin ahalko zaio erreklamazioa.
2. Alkatearen eta Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren eta Plenoaren erabakien aurka, indarrean dauden xedapenetan aurreikusten diren administrazioko eta jurisdikzioko



errekurtsok jar daitezke.

### **AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA**

Erregelamendu honetan zehaztuta ez dagoenean Toki-araubidearen arloan indarrean dagoen legedia, Herri Administrazioaren Ondareari buruzko legedia, Sektore Publikoko Kontratuari buruzko legedia eta aplikatu beharreko gainontzeko legedia aplikatuko da.

### **AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA**

Erregelamendu hau Udalak onartu eta testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara ematen denean sartuko da indarrean.